



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, BATXILERGOKO,  
LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZARAKO  
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA MASTERRA

**MASTER AMAIERAKO LANA**

Izenburua: Espainiako Gerra Zibila iturri historikoen bidez  
lantzen.

Espezialitatea: Gizarte Zientziak.

ARANA MONTOUTO, Asier

////////////////////////////////////

Zuzendariak:

MAJUELO GIL, Emilio

SÁINZ PASCUAL, Zuriñe

2013-2014 Ikasturtea

# AURKIBIDIEA

1. LABURPENA ETA ABSTRACT .....	1.orria
2. SARRERA .....	2.orria
2.1. GAIAREN AURKEZPENA .....	3.orria
2.2. GAIAREN MOTIBAZIOA .....	4.orria
2.3. HELBURUAK .....	6.orria
3. EGOERAREN AUZIA .....	8.orria
4. METODOLOGIA .....	12.orria
4.1. IKASLEEN AURRE-JAKINTZAK .....	13.orria
4.2. JUSTIFIKAZIOA .....	13.orria
5. EMAITZEN ANALISIA .....	15.orria
6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: ITURRI HISTORIKOAK .....	18.orria
6.1. HAUTATUTAKO IRUDIAK .....	19.orria
6.2. HAUTATUTAKO PRENTSA ARTIKULUAK .....	20.orria
6.3. HAUTATUTAKO DOKUMENTALA .....	22.orria
7. ONDORIOAK .....	24.orria
8. BIBLIOGRAFIA .....	28.orria
8.1. WEB-GRAFIA .....	28.orria
9. ERANSKINAK .....	29.orria

## 1. LABURPENA ETA ABSTRACT

Lan honen bitartez, Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientzietarako proposamen didaktiko bat aurkezten da. Honen helburua, ikasgelan, iturri historikoen lanketa eta trataera jorratzea da. Planteamendu honek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden gabeziei aurre egiteko asmoz proposatzen da, hain zuzen ere, informazioa tratatzeko ikaslegoa duen zailtasunei aurre egiteko eta ikasleen ikuspegi kritikoa garatzeko.

Proposamen hau gauzatzeko, gaiaren egoera teorikoa aztertuko da lehenik. Ondoren, galdeketa bat entregatu da ikasleen aurre-jakintzak ezagutzeko asmoz. Behin galdetegi horren emaitzak analizatuta, proposamen didaktikoa era zehatzean azalduko da. Azkenik, proposamen didaktiko honen inguruko hausnarketa eta ondorio nagusiak plazaratuko dira, berorren aplikazioaren mugak eta abantailak identifikatuz.

**Hitz gakoak:** *Iturri historikoak, ikuspegi kritikoa, proposamen didaktikoa.*

---

This work presents a proposal for the Social Sciences in compulsory secondary education. The objective of this is to work with historical sources in the classroom. This proposal is presented with the intention of addressing the shortcomings that plague the compulsory secondary education. Precisely in order to deal with the difficulties that students have in dealing with information and in developing their critical vision.

To materialize this proposal, has been examined the theoretical situation of the issue first. Then given a questionnaire in order to learn about the knowledge of the students. Once analyzed the data from the questionnaires, the didactic proposal will explain in detail. Finally, will be showcased reflections and more general conclusions about this proposed teaching, identifying their limits and advantages of its application.

**Key words:** *Historical sources, critical view, didactic proposal.*

## 2. SARRERA

Lan honen bitartez, Espainiako Gerra Zibila 4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nola tratatzen den ikusiaz, berrikuntza didaktiko bat proposatzen da. Gerra Zibilaren gertakari historiko konkretua landuko bada ere, ikasleek, iturri historikoen garrantziaz jabetzea eta beraien erabilgarritasunaz jabetzea lortu nahi da proposamen didaktiko honekin.

Iturri historiko desberdinak baliatuz, Historia, ikaslegoari hurbildu nahi zaie. Horretarako, iturri historiko anitzak landuko dira. Alde batetik, Historia ikertzeko eskaintzen dizkiguten elementuak identifikatuz eta bestetik, ikasleen ikuspegi kritikoa lantzeko asmoz.

Gerra beraren nondik norako garrantzitsuenak landu ordez, garaiko errealitate sozialera gerturatzeko proposamena da honakoa: emakumearen papera, klaseen arteko borrokak... Eta hau bera, edozein garai historikoaren ikaskuntza prozesuan aplikatu daiteke. Historiaurretik, Egungo Mundura. Historia politiko-militarrak berebiziko garrantzia izan du (eta gaur egun oraindik du) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskuliburuetan. Proposamen honetan historia soziala ardatzailea da, nahiz eta disziplinaren beste esparruak modu trasbersalean ere jorratzen diren.

Proposamen didaktiko honekin Historia beste era batean azaltzeaz gain, Historia bera, gaur egungo problematikak ulertzeko tresna bezala behar dute ikusi ikasleek. Historia egungo errealitatea interpretatzeko tresna gisa aurkeztu beharra dugu ikaslegoaren aurrean. Azterketa eguna baino bi egun lehenago gaia buruz ikasteak, inolako ikuspegi kritikorik garatu gabe, ez du inolako zentzurik. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe askotan ematen den errealitate hau iraultzeko proposamena da honakoa. Memorizatu ordez, ikasleek, ulertu behar dute.

Proposamen didaktiko honetan, edukiez gain, balore desberdinak landu eta garatu nahi dira. Lehenik eta behin, ikasleen arteko harremanak balore parekideetan oinarrituz. Bigarrenik, pertsona guztien arteko berdintasuna, hitzetik ekintzetara

pasatuz. Eta azkenik, enpatxa landuz eta ikasleen arteko elkartasuna hedatuz. Balore guzti hauek, ikasleen gaitasun soziala eta herritartasuna indartzeko asmoaz jorratu nahi dira.

## 2.1. GAIAREN AURKEZPENA

Hezkuntza Sistematan txertatuta dagoen ikaskuntza-irakaskuntza metodoa, edukien eta batez ere Curriculumaren menpe dago. Hainbat dira aldatu beharreko errealitateak Hezkuntza Sistematan. Orain arte prozesu historikoak, hots Historia bera, osotasun baten landu behar direla esaten du Curriculumak: historia politiko-militarra, ekonomikoa, soziala e.a. Betiere ikasketa esanguratsu eta ikasleen ikuspegi kritikoa lantzeko asmoaz. Tamalez, errealitate hau gutxiengoa da egunerokotasunean. Ikastetxeetan ematen dena, batez ere, Historia politikoari erreferentzia egiten dio. Bide horretan, prozesu historikoaren ikuspegi globala bertan behera geratzen da. Historia beraren erabilgarritasuna hankamotz geratzen da, baldin eta helburu didaktikoa gaia buruz ikastea bada. Hori dela eta, Historia sozialean zentratzen da proposamen didaktiko hau: pertsonen egunerokotasunean, beraien harremanetan e.a. hori baita edozein testuinguru historiko ulertzeko erarik hurbilena. Betiere, testuinguruaren garrantzia azpimarratu beharko da – nola geografikoa hala kronologikoa- Historia soziala lantzerako orduan.

Hala ere, ikasleek prozesu historikoak ulertzea eta Historia totalaren “argazki” bat barneratzea ez da proposamen didaktiko honen helburu bakarra. Prozesu historikoak landu ez ezik, enpatxa ere landu nahi da ikaslerian. Nerabeen egoera kognitiboa kontuan hartuta, metakognizioa garatzeko aukera ahalbidetzen dizkigute bigarren hezkuntzako gazteek. Beraien gorputzaz eta mentalitateaz jabetzen hasten diren garaian, enpatxa garatzeko mekanismoak hedatu behar dira irakasleen aldetik. Gainera, kontuan eduki beharra dugu, edozein prozesu historiko ulertzeko ezinbestekoa dela enpatxaren nolabaiteko garapen maila izatea (hein txiki edo

handiago baten). Baita ere, enpatxa nahitaezkoa da herrien problematikak bere osotasunean ulertzeko. Hari honi tiraka, irakasleok, baloreak eta jarrerak hedatu behar ditugulako nerabeen artean: irakatsi ez ezik, ikasleak hezitzen ekarpena egin behar dugulako.

Hau guztia lortzeko, iturri historikoak landuko dira, betiere metodologia konstruktibista bat hizpide hartuta. Historialarien lana egiteaz aparte, ikasleen autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna indartzen delako. Aldi berean, ikasleek, beraien jakintza eraikitze bidea egiten doaz iturri historikoak lantzearekin batera. Era honetan ikasleen ikuspegi kritikoa aberasteko eta beraien iritzi propioak sortarazteko abagunea eskaini nahi da proposamen didaktiko honekin.

## 2.2. GAIAREN MOTIBAZIOA

Arestian aipatu legez, hainbat dira Bigarren Hezkuntza Sistemako irakasleok ditugun erronkak. Proposamen didaktiko honen bitartez, irakaskuntza prozesuan identifikatutako arazo bati aurre egiten saiatu gara: iturri historikoen erabilpen eta ezagutzan ikasleek dituen zailtasunak. Gizarte ikasgaiak duen izaera memoristikoa alboratu eta ikasteko beste aukera bat eskaini nahi da proposamen honen bidez, *“el conocimiento que adquieren los alumnos en la clase de Historia se trata de un conocimiento memorístico y repetitivo, escasamente reflexivo”* (Merchán, 2011) Ahaztu ezin dugu egin, gure errealitate soziala aldatzen den heinean, hezkuntza mundua moldatu behar dela ere aldaketa horiei: informatika baliabideak, liburu eta ikerketa berriak, berrikuntza didaktikoak e.a. Guk geuk, irakasleok, etengabe formatuta egon beharra dugu ikasleei ahalik eta informazio iturri egokienak, eskaintzeko eta kritikotasunez lantzen irakasteko.

Aldi berean, Historiak duen gaurkotetasuna azpimarratu nahi izan da. Era honetan, egungo problematikekin lotzeko asmoarekin: hobi komunen auzia, abortuaren legea, lan-gatazkak, e.a. Betiere, eta ikasleek Historia duten

gaurkotasunaz jabetzeko, beraien hausnarketak izango dira eta ez irakasleak emandakoak. Ikasleen ikuspegi kritikoa lantzeko bidean eginiko saiakera da honakoa, ikasleriaren gogoetak eta balorazioak eztabaidatzeko abagunea. Bide batez, ikasleria, ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzen da.

Espainiako Gerra Zibila gertakari isolatu bat modura irakasten da Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan. Ez da prozesu historiko bezala azaltzen eta arazo horri aurre egiteko, hots ikuspegi global bat izateko, diseinatutako proposamena da hemen garatzen dena. Era honetan ikasleen hausnarketarako, eztabaidarako eta iritzi propioak eraikitzeko aukera eskaini nahi zaie ikasleei. Proposamen honetan, ideia horrekin apurtu eta prozesu historiko moduan irakasten ahaleginduko gara. Gerra Karlistak edota Primo de Riveraren diktadurak, esaterako, eragina izan zuten altxamendu militarrean. Aldi berean, altxamendu militarren ondorioak gaurdaino mantentzen dira, ez baitziren 1939. urtean amaitu. Historia prozesu modura ulertzea da proposamen honen motibazioetako bat. Helburu hauek guztiak lortzeko asmoz, iturri historikoak landuko dira ikasleen aldetik.

Gabezia honi aurre egiteko, eta ikasleen motibazioa bultzatzeko asmoz, iturri historiko desberdinak erabili dira: dokumental labur bat (ahozko iturriekin), garaiko kartelak, garaiko prentsa artikulak edota egungo ikerketak, besteak beste. Iturri guzti hauek, gertakari historiko konkretua, prozesu historiko modura ulertzeko erabili izan dira. Batez ere, baliagarria izan da oso *Corazones Rojos* dokumentala. Geroago eskainiko diogu iturri honi bere tartea.

Azken baten, proposamen honetan ikasleen garapen integrala eta kritikoa lortzen saiatzen da. Edukiak bigarren maila baten geratu eta pertsonak lehenengo planoan jarri behar ditugu irakasleok; beraien garapen integrala (eta ez kognitiboa soilik) erdiesteak ikaskuntza prozesuaren ardatza behar delarik izan.

### 2.3. HELBURUAK

Lan honetan, Espainiako Gerra Zibilaren bestelako trataera bat egiten saiatzen da. Nahiz eta gai zehatz honekin landu, Historiako beste edozein gai lantzeko aukera eskaini nahi digu hezkuntza proposamen honek.

Lehen aipatu legez, iturri historiko desberdinez baliatuko gara honako helburuak erdiesteko. Betiere, helburu pedagogikoak eta didaktikoak kontuan izanda, ahalik eta iturri anitzenak eskaintzen saiatu beharra dugu irakasleok. Aipamen berezia, ikasleen interesa medio, egin beharra dugu ikus-entzunezko iturrietan. Iturri historiko desberdinekin, Historia sozialari emango zaion garrantzia berebizikoa da eta ikus entzunezko baliabideek aukera hori gauzatzeko tresna eskaintzen digute. Historia aztertzeko, egunerokotasunean oinarritutako bizipenak eta problematikak iturri bezala ikusi behar dute ikasleek. Iturri guzti hauek helburu didaktikoak eta pedagogikoak eskuratzeko tresna baliagarriak izango dira:

- Iturri historikoak baliabide didaktiko gisa erabiltzea.
- Espainiako Gerra Zibila prozesu historiko gisa ulertzea.
- Gerra Zibileko aurrekariak, garapena eta ondorioak identifikatzea eta ulertzea.
- Prozesu historikoak dituen arrazoi politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko elkar harremana identifikatzea eta ulertzea.
- Historia soziala ikastea ikaslegoarenaganako hurbilpena sustatzea.
- Ikasleek beraien iritzi propioak garatzea.
- Ikasleen jarrera kritikoa bultzatzea eta garatzea.
- Ikasleen arteko berdintasunezko harremanak sustatzea.
- Gaitasun soziala eta herritartasuna garatzea ikaslegoan.
- Ikasleen autonomia eta ekimena sustatzea.



Hala ere, helburu hauek lortzeko bidean hainbat zailtasunekin aurkitu gara. Lehenik eta behin, irakaskuntza-ikaskuntza memoristikoa nagusitasunek eragiten dituen mugak sortzen dira klasikotzat hartzen den Historia Politikoaren ondorioz. Hortaz, iturri historikoen lanketa didaktiko esanguratsua burutzea ez da batere erraza, *la experiencia como profesional y mi propia formación intelectual me lleva a pensar que en el rechazo a la Historia memorística y la apuesta por un conocimiento crítico y emancipador* (Merchán, 2011). Metodologia honekin ez da edukien memorizazioan sakontzen, testuinguru historian baizik.

Bigarrenik, ikasleen garapen kognitiboa sustatzeko bidean metodologia espositiboak dituen mugak ukaezinak dira. Metodologia eraikitzailea jarraituz, ikaskuntza prozesua eraginkorragoa da, izan ere protagonistak ikasleak baitira eta haiek bere ikaskuntza autonomoaren sortzaileak dira. Pertsona, berez, kuriositatez eta ikasteko gogo ikaragarriekin jaiotzen eta garatzen da. Ikasteko grina hori esplotatu behar dugu irakasleok, baina ez metodologia “klasikoa” erabiliaz.

Hirugarrenik, Curriculum-aren muga dago. Irakasleok, eduki batzuk irakastera behartuta gaude, baita helburu batzuk betetzera ere. Baina eduki horiek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ardatza izatera igarotzen direnean azalarazten da arazoa. Dударik gabe, arazo bat da Curriculumak proposatzen duen ikaskuntza-irakaskuntza markoa. Ikasleak ikaskuntza prozesuaren erdigune bilakatzen dira proposamen honekin.

Laugarrenik, ahaztu ezin dugu hezkuntza estatuen aparatuen tresna gisa erabili izan dela belaunaldiz-belaunaldi, eta egunez-egun erabiltzen jarraitzen dela. Botere hegemonikoa dutenen tresna bat da beraien ideologia, ekonomia eta kultura inposatzen saiatzeko. Errealitate horrekin apurtu eta bestelako hezkuntza eredu baten aldeko apustua egiten du proposamen didaktiko honek.

### 3. EGOERAREN AUZIA

Didaktikan edo hezkuntzan “grabitatzen” saiatu gara lan honen bitartez, betiere Gizarte Zientziak hizpide hartuta. Lan honetan iturri historikoak erabiltzen dira Espainiako Gerra Zibilari hurbilpen bat egiteko. Iturrien trataera didaktikoaren inguruko gogoeta egingo da atal honetan. Aldi berean, konstruktibismoan oinarritzen den metodologia pedagogikoa aztertuko da.

Iturri historikoak era didaktikoan erabiltzeko hainbat material landu dira. *La enseñanza de la historia a través de las fuentes históricas: ayuda a (...) conocer la historia más próxima (...) generar un conocimiento histórico concebido como discutible (...) contemplar aquello en un ‘estado natural’ (...) poner en contacto directo al alumnado con el pasado. Facilitan el protagonismo y la autonomía del estudiante en su propia reconstrucción de la historia (...)* (Santisteban, Gonzalez eta Pagès, 2010). Lehenik eta behin esan beharra dago, eduki eta helburu guztiak curriculumarekin txertatuta behar direla egon. Behin argipen hau eginda, ikasleen hezkuntza sozial eta pertsonala gauzatzeko tresna behar duela izan Historia (Pagès, 2002).

Alde batetik, ikasleen etengabeko hausnarketa eta gogoeta kritikoa garatzea ezinbesteko erronka da Bigarren Hezkuntza Sistema garatu batean. Bestetik, irakasle moduan, etengabe behar dugu egon ikaskuntza prozesuaren inguruan hausnarketak egiten: *La reflexión (...) sobre la enseñanza de contenidos sociales, geográficos e históricos (...) es fundamental en el profesorado* (Pagès, 2002).

Zentzu honetan, Gizarte Zientzien alorrean egindako ikerketen eta berrikuntza pedagogiko zein didaktikoen gain egon behar dugula irakasleok. Berdin du non edo nola aplikatu den, baina gure testuingurua zein den kontuan hartuz, ikerketa eta berrikuntza horiek moldatu behar ditugu. Gero eta gehiago, munduan zehar, hezkuntzaren muga ezak agerikoak baitira (Henríquez, 2012).

Iturri historikoen egoera teorikoa lantzeko hainbat ikerketekin jardun gara, bereziki Emilio Majuelo eta Esther Guibertekin lanarekin. Bertan iturriak lantzeko proposamen bat plazaratzen da. Iraganaren eta orainaren arteko harremana

azpimarratzen da ezagutza historikoa eraikitzerako orduan, *la construcción de los saberes históricos plantea la relación entre el pasado y presente. El pasado en la medida que aporta datos, información etc. y el presente en tanto que los interpreta* (Guibert & Majuelo, 1998). Hori da, hain zuzen ere, proposamen honekin bilatu nahi dena: ikasleek informazioarekin tratatzea eta balorazio historikoak egitea. Iturrien inguruko definizio bat egitea ez legoke txarto egongo, guztiok jakin dezagun zertaz hitz egiten ari garen iturri historikoez aritzen garenean. Iturri historikoak iraganeko edozein informazio iturri baliogarriak dira, betiere gure galderak erantzuteko balio baldin badute, *lo que hace que algo pueda llegar a ser fuente (...) depende de su utilidad para responder al interrogante o problema planteado por el historiador* (Guibert & Majuelo, 1998).

Bi autore hauek proposatzen duten metodologia iturri historikoak lantzeko honakoa da: iturriak erabili aurretiko lanak, iturriekin lan zehatzak eta idatzi historikoak burutzea.

Argi dago iturrien bilketa eta hautatze prozesua klabea dela ikasleen interesa eta motibazioa pizteko. Aldi berean, iturriak klasean landu baino lehen irakasleak landu beharko ditu, bere kabuz hipotesiak eta problematikak planteatuz. Proposamen didaktiko honetan, iturri historiko desberdinekin lan egitea planteatzen da. Behin “sukaldeko lana” eginda, ikasleen txanda dator. Bi atal nagusitan sailkatzen da haien eginkizuna: analisisa eta balorazioa. Planteamendu didaktiko honetan bigarren atalari erreparatuko diogu, betiere ideia honi kasu eginez: *El tratamiento de las fuentes en la escuela puede y obliga a desarrollar en los alumnos las capacidades para saber elaborar una nueva información (...) Para que los alumnos valoren la necesidad del uso de las fuente en esta construcción del pasado, a hacerlos conscientes de que (...) el conocimiento histórico no es estable* (Guibert & Majuelo, 1998).

Proposamen didaktikoa azalduko den bezala, hiru iturri mota aukeratu dira proposamen honetarako. Ahozko iturrien garrantzia azpimarratzeko audiobisualak erabiltzea proposatzen da. Audiobisualak berebiziko garrantzia dute

proposamen horretan. Zinema erabiltzearen baliabidea ez da berria, eta duela bi hamarkada hasi zela erabiltzen ikasgeletan (era planifikatu eta estrukturatu batean behintzat). Audiobisualek ikaragarritzko giza proiektzio dute.

Aldi berean, ikasleengana “hurbiltzen” gara horrelako baliabideak erabiliz. Film laburrek eta luzeek ikasleen garapena trebatzeko oso tresna baliagarriak dira, *el cine puede ser considerado como entorno formativo, como estrategia para aprender y estudiar los cambios (...) el cine puede ser un poderoso instrumento para cambiar los valores sociales* (AA. VV., 2004). Ikasleen gogoeta kritikoa garatzeko helburu nagusia du ikus-entzunezko baliabideak lantzea. Analisiak egin ez ezik, ikasleen arteko hausnarketak eta eztabaida emateko aukera eskaintzen dizkigute audiobisualak. Filmografia, betiere ikuspegi kritiko batetik abiatuta, formakuntzarako tresna eraginkorra izan daiteke. Historiaren ikuspegi global eta integrala eskaini egiten digun heinean, probestu beharreko baliabidea da, dudarik gabe. Espainiako gatazkaren aspektu sozialari eta kulturalari erreparatu nahi zaio batez ere. Filmek eskaintzen duten disziplina-arteko parametroa, paregabea da, hain zuzen ere material askorekin lantzen delako; argazkiak, kultura, ahozko testigantzak, literatura, e.a.

Beste alde batetik, ikerketa honen beste aspektu bat metodologia konstruktibista izango litzateke. Hezkuntzaren begirada aldaketa bat eman behar dela ez dute ikasle, irakasle eta guraso gutxik babesten soilik. Guk geuk, irakasle modura, ikasleak aktore buruak bilakatu behar ditugu. Ezin dira bigarren mailako –eta batzuetan “extrak” ere- aktore bezala tratatu. Bigarren Hezkuntzako metodologiak, oro har, hausnarketa egin beharra dauka. Teoria hauen aitzindariak Lev Vigotsky eta Jean Piaget izan ziren. Ariel Severok ondo aztertzen ditu beraiek egindako ekarpenak didaktikari: *Los objetivos pedagógicos deben estar centrados en el niño (...) y los contenidos no se conciben como fines, sino como instrumentos al servicio del desarrollo evolutivo natural* (Severo, 2012).

Ikasleen arteko elkarlana eta harremana metodologia honen oinarri bat da, ikaskuntza interaktiboaren bidean. Ikasleen arteko ikuspegi desberdinak eta

hausnarketak oso baliagarriak dira beraien ezagutza eraikitzeko, *las experiencias de aprendizaje deben estructurarse se manera que se privilegie la cooperación, la colaboración y el intercambio de puntos de vista en la búsqueda conjunta del conocimiento* (Severo, 2012).

Aldi berean konstruktibismoaren oinarri metodologikoetako bat honakoa da; aurkikuntzaren metodoa, *el principio básico de la metodología piagetiana es la primacía del método de descubrimiento* (Severo, 2012). Kontuan hartzekoa da ere, zer nolako eragina duen testuinguruak pertsona garatzerako orduan, baita jakituriaren eraikuntzak ere *abordará (el alumnado) el estudio de la conciencia de conocimientos como un proceso en construcción y transformación, y no en tanto estado definitivo de las cosas* (Severo, 2012). Testuinguruaren alorrean aipatu beharra dago Vigotsky-k azpimarratzen duen hizkuntzaren garrantzia pertsonak garatzerako orduan. Azkenik, ikaskuntza aktiboaren garrantzia aipatzea nahitaezkoa da metodologia honen baitan: ikasleria bere ikaskuntza prozesuaren parte aktibo izatean oinarritzen da.

Metodologia konstruktibistaren beste ideia garrantzitsu bat honako hau da *El grado de aprendizaje depende del nivel de desarrollo cognitivo del individuo* (Calaf, 1994). Azken baten konstruktibismoa gure helburuak lortzeko tresna bat da, metodologia bat: *El constructivismo es un enfoque muy válido para las disciplinas sociales (...) porque ofrece vías para la adquisición de un sentido crítico (...) y porque muestra la complejidad (...) de las múltiples versiones (...)* (Calaf 1994).

Ikasle kritikoak garatzeko, metodologia alternatiboak erabili behar dira. Hau haietako bat da. Teoria erreproduzitzaleak alboratu behar ditugu eta metodologia eraikitzailearen adreiluak finkatzen, errotzen hasi behar gara. Ikaslea era kritiko eta aktiboan hezitu behar dugu, hezitu behar gara.

## 4. METODOLOGIA

Lan honetan fase desberdinak garatu dira. Lehenik eta behin, informazioa bilaketan zentratu egiten da. Horretarako hainbat iturrietatik atera izan dut informazio baliagarriena. Informazio iturrietan, bibliografia, web-grafia eta filmografia anitzak erabili dira.

Informazio bilketa hau erabilgarria izan da gaiaren egoera teorikora hurbiltzeko. Pedagogia konstruktibistaren inguruan asko idatzi dela esan daiteke – nahiz eta ez beste gai batzuk adina-. Informazio biltzeko fase honetan, gaia lantzeko materialak eskuratu dira.

Curriculum ofizialaren mugak agerikoak badira ere, metodologia berritzaileak erabiltzeko garaia da. Ez du balio Curriculumean “babestea” metodologia tradizionalak defendatzeko. Didaktika berritzaile, kritiko eta eraikitzaile baten alde egiteko garaia da irakasleriaren aldetik. Muga eta abantaila guztiak kontuan hartuta, pausu hori emateko proposamen aurkeztu nahi da.

Behin informazio guztia irakurrita eta ordenatuta dugula, ikasgelaren errealitatea kontuan hartu beharra dugu. Ikasgela baterako balio duena ez du zertan beste ikasgela batean funtzionatu beharrik. Ikasleen interesei eta aniztasunari erreparatu beharra dugu. Hortaz, metodologia egokitzen jakin behar izango du irakasleak.

Klasean erabilitako metodologia espositiboa izan bada nagusi, ikasleek beraien jakintza eraikitzeko apustua egin nahi du proposamen didaktiko honek. Ikasleen parte-hartzea eta interesa sustatzen ahalegintzen gara.

Lehenik eta behin, saioen sekuentziazioa ezagutarazi zaie ikasleei; saio bakoitzean zer jorratuko den azalduz. Jarraian, galdeketa orri bat eman zaie beraien aurre-jakintzak zeintzuk diren jakiteko (1. Eranskina). Galdeketaren bidez ikasleen jakintzak zein mailatan zeuden ikusteko baliagarria izan da. Aldi berean, berrikuntza pedagogiko baten beharra agerian geratu da galdeketak aztertu eta gero.

Ondorengo fasean iturri historikoekin lantzen jardun gara. Fase honetan saio guztiak barne biltzen dira; saio bakoitzean iturri historiko desberdin bat landuz. Lehenengo saioan gerra garaiko karteekin lan egingo da eta prentsa artikuluekin bigarreanean. Hirugarren saioan *Corazones Rojos* dokumentala ikusi eta landuko da. Azken saioan 2.mailako iturriak landuko dira.

Aipatu beharra dago iturri historiko desberdinak lantzearekin batera, galderak erantzun eta hausnarketak egin beharko dituztela ikasleek. Azken saioaren amaieran, guztion arteko eztabaida bat proposatuko da. Guztien ikaskuntza prozesua ikusi ez ezik, beraien begirada zorrotza eta ikuspegi kritikoa sustatzea bilatzen du metodologia honek.

#### **4.1. IKASLEEN AURRE-JAKINTZAK**

Ikasleen jakintza maila zein den ikusteko galdeketa bat eman zaie lehenengo saioaren hasieran. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailan burututako galdeketa izan da, hain zuzen ere 14 eta 15 urte bitarteko gazteekin. Gazte hauek Berriozar Institutuko ikasleak dira. Aipatu beharra daukat zer nolako heterogeneotasuna dagoen, behintzat, ikasgela honetan. Aurre-jakintzetan denetatik egon da: zuriz uzten zuten ikasletatik pasatuz, erantzun argudiatuak ematen zuten ikasletara igaroz. Haatik, aurrerago analizatuko ditugu galdeketa horiek. Esan bezala, galdeketa helburua ikasleen jakintza maila non dagoen ezagutzeko da. Era honetan ikasleen gabezia nagusiak identifikatu eta aurre egiteko aukera eskaintzen digu; hutsuneak landuz eta dakitena zalantzan jarriz.

#### **4.2. JUSTIFIKAZIOA**

Esan bezala, ikasleen aurre-jakintzak zeintzuk diren ezagutzeko burutzen da galdetegia. Galdetegian printzipio historikoen inguruko galderak planteatzen dira. Bide

batez, nahitaezkoa baita ikasleek zer dakiten eta zer ez jakitea. Galdetegien emaitzekin gure proposamena nola edo hala moldatu beharko dugu, ikasleen zailtasun eta kezka nagusiei aurre egiteko asmoz. Printzipio historikoekin lotutako galderak oso oinarrizkoak dira, baina behar beharrezko abiapuntua da gaiaren kokapen urrunago edo hurbilago bat burutzeko: noiz, non, zergatik, nortzuk eta ondorioak. Horrek izan ziren planteaturiko galderak, betiere gaiaren testuingurua era egokian kokatzeko asmoarekin. Aldi berean, gertakari historikoan parte hartu zuten aktore desberdinen partaidetza galdetu zaie, nola barne aktoreak hala kanpokoak. Azkenik beraien ikuspegi kritikoa garatzeko proposamen bat planteatzen zaie ikasleei, baita beraien sentimenduak agerian uzteko aukera ere.

Aipatu beharra dago, Historia egungo mundua ulertzeko tresna bat bezala ikusteko asmoarekin azken planteamendu bat proposatzen dela galdetegian. Alegia, gerra garaitik, gaur egun arte dauden problematikak identifikatzea eta aipatzea.

Galdetegia bi aldiz entregatuko da klasean. Gaia lantzen hasi aurretik bete behar izango dute ikasleek lehenengo galdetegia. Bigarren galdetegia gaia landu eta gero beteko dute. Lehenik eta behin ikasleen aurre-jakintzak zeintzuk diren ezagutzea ahalbidetzen digu tresna honek. Batetik, ikasleen garapena eta eboluzioa zein izan den ikusi ahalko dugu. Bestetik, planteaturiko hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko baliagarria izango da galdeketa. Aldi berean, ikasleen kezkei eta erronkei aurre egiteko parada eskaintzen digu irakasleei.

Erabilitako galdera sorta honek gabezia bati aurre egiteko asmoarekin planteatzen da, hain zuzen ere ikasleen kokapen historikoa zehazteko eta balorazio kritikoak eta propioak garatzeko. Esan bezala agerian geratu da galdetegi honen bidez – betiere ikasleen heterogeneotasuna kontuan izanik- ikasleek iritzi propioak garatzeko dituzten zailtasunak. Edukiak buruz ikastera mugatzen dira eta ez dute beraien hausnarketa propioak garatzeko gaitasunik, oro har. Bide batez errealitate horrekin apurtzeko planteatu da metodologia hau. Ikasleek beraiek ohartzea buruz ikastea ez dela gauzarik garrantzitsuena, ulertzea baizik eta horren arabera balorazio pertsonalak egitea.



## 5. EMAITZEN ANALISIA

Galdeketaren bitartez ikasleen aurre-jakintzak zeintzuk diren ikusi nahi izan da. Printzipio historikoak ez ezik, Espainiako Gerra Zibilaren inguruko hausnarketa batzuk eskatzen ziren ikasleek bete zezaten. Ezer baloratu baino lehen ikasleen heterogeneotasuna aipatu beharra dago. Ikaragarritzko aldea dago ikasle batzuen eta besteen artean. Galdetegia aztertu ondoren hainbat ondorio atera dira. Galderaz galdera ateratako ondorioak aipatzeari ekingo diogu.

Lehen ondorioa ikasleen gaitasun eskasa da Espainiako Gerra Zibilaren kokapen historikoa egiteko; hau da, testu-inguratzeko noiz, non, nortzuk eta zergatik suertatu zen gatazka hura.

Ikasleen gehiengoak ez du gerraren kokapen kronologikoa ondo egin, lehenengo galderari dagokionez. Gutxi batzuk ordea, urteak ondo aipatu ez ezik, Europako testuinguru politikoa zein zen aipatu dute hala nola; Hitlerren erregimen nazia edota Mussoliniren erregimen faxista. Oso harrigarria iruditu zait ikasleen gehiengoak ez jakin izana Espainiako Gerra Zibila kronologikoki kokatzen.

Bigarren galderari dagokionez, gerraren arrazoiak zeintzuk izan ziren ikusi dugu. Galdera honen harira ateratako ondorio nagusia honakoa da: oso ikuspegi sinplista egiten dute arrazoiak izendatzerako orduan. Ez dute elkarreraginean jartzen hainbat eta hainbat arrazoi. Beraien ustetan, arrazoi bakarra - edo bi gehienez jota- dago Espainiako Gerra Zibilaren ezteandean. Gehien gehienek II. Errepublikan egindako erreformek eragin zutela aipatu dute. Beste askok ez dute ezer erantzun eta gutxi batzuk militarren eraginez izan zela aipatu dute.

Hirugarren galderan barne aktoreak zeintzuk izan ziren galdetzen da. Gehienek ondo erantzun dute galdera honi: errepublikarrak eta faxistak edo nazionalak aipatu dituzte. Barregarria iruditu zait batek baino gehiagok nola erantzun duen “fatxak” terminoa erabiliz. Gutxi batzuk ez dute ezer erantzun. Galdera honen inguruko ondorio nagusia honakoa da; ikasleen gehiengoan identifikatuta ditu gerrako bi bandoak. Hala

ere, bandoen partaideak aipatzerako orduan oso ikasle gutxi aipatu dituzte alderdi politikoak, sindikatuak edo eragile sozialak.

Laugarren galdera hirugarrenarekin lotura handia dauka. Nazioarteko parte-hartzearen inguruko galdera da hain zuzen ere. Ikasleen gehiengoa Hitlerren parte-hartzea aipatu du. Gutxi batzuk ez dute ezer erantzun. Ondorio nagusienetarikoa galdera honekiko erregimen totalitarioen parte-hartze aktiboa, ezaguna dela ikasleen artean. Beste ondorio bat honakoa izango litzateke; inork ez du aipatu Brigada Internazionalen parte-hartzea. Gabezia honi aurre egiteko, *Tierra y Libertad* filmaren lehenengo eszena ikustea erabaki nuen, nolabaiteko hurbilketa bat egiteko Europako eta munduko Langile Mugimenduaren baitan eratu zen fenomenoaz azaltzeko.

Bosgarren galderarekin ikasleen ikuspegi kritiko falta agerian geratu da. Ez dute besterik esaten normala denaz haratago. Zeintzuk izan ziren gerraren ondorioak? Guztiek ondorio demografikoak aipatu dituzte soilik. Eta demografikoen barnean soilik hildakoen ondorioa. Ez dituzte ondorio politiko, sozial ezta kulturalik aipatu. Gehien gehienek hildakoen ondorioa aipatu dute eta gutxi batzuk ez dute ezer erantzun. Ez dute barneratuta ondorioak gaur egun arte bizirik mantentzen direla hainbat alorretan. Uste dute, orokorrean, ondorioak 1939.urtean amaitzen direla eta ez dutela inolako jarraikotasunik. Ikuspegi horrekin apurtzen saiatu naiz galdetegiaren analisi hau egin ondoren. Gerren inguruan egindako irakurketa militarista eta belizistaren ondorioa da ikasleek ikuspegi hain sinplista bat izatea.

Seigarren galderan, Espainiako Gerra Zibilak, Nafarroan zein eragin izan zuen galdetzen da. Ikasleen gehienek eragina izan ez zuela erantzun dute. Oso larria iruditzen zait beraien herrialdeko Historia ez irakastea. Gabezia honen aurrean egiteko *Corazones Rojos* dokumentala ikustea erabaki nuen. Era honetan, eta Tuterako kasu konkretua hartuta, Nafarroan izandako genozidioaren berri izateko aukera izango dutelarik. Bitxia da nola ez duten argudiatzen beraien erantzunak eta era sinple batean erantzuten duten. Ikasleen ehuneko esanguratsu batek ez du ezer erantzun

(hamaseitik zazpik). Dokumental honen bitartez, Espainiako Gerra Zibilak Nafarroan izan zuen eragina hurbiltzen ahaleginduko gara, ahozko iturrien garrantzia lantzen lagunduko digun bitartean.

Zazpigarren galderan sentimenduak azalarazteko aukera eskaintzen da. Ondorio nagusia beraien sentimenduak helarazteko eta arrazoitzeko duten zailtasuna da. Ez dute pena edo amorrua baino sentimendu gehiagorik aipatu. Asko harritu nau beraien sinpletasuna erantzuterako orduan. Ez dute batere argudiatzen beraien erantzuna eta aldi berean, sentimenduak transmititzeko dituzten arazoak agerikoak dira: *Pena eragiten dit horrelako zerbait gertatu izana* bezalako komentarioekin. Bi errealitate aipatu behar dira arazo honen aurrean. Alde batetik sentimenduak behar beste ez lantzearen ondorioa da sentimenduak helarazteko duten gaitasun eskasa. Apustu bat egin beharra dago hezkuntza komunitatearen aldetik, haur eta lehen hezkuntzatik sentimenduak kudeatzen eta helarazten ikasteko. Pertsonen garapenean, nahitaezko faktore bat dela ukaezina da. Bestetik, beraien iritzi propioak argudiatzeko dituzten arazoak agerian geratzen dira. Hain sinplistik eta arrazoitu gabeak dira beraien erantzunak, ezen irtenbide bat bilatzeko beharra premiazkoa den. Ezin da posible izan hamalau eta hamabost urteko gazteek beraien erantzunak argudiatu ez izana. Aipatu beharra dago hainbat ikaslek ez dutela erantzun ere egin, beraien sentimenduak azalarazteko duten gabezia agerian utziz.

Azken galdera gaiaren gaurkotasuna bilatzen ahalegindu da. Gaur egungo problematikak, Gerra Zibileko gatazkekin lotzea. Gutxi batzuk lurraldetasunaren arazoa aipatu dute baita hizkuntza gutxituen arazoa ere. Halere, gehienek ez dute loturarik egitea lortu. Erantzun hauek jaso eta gero, gaur egungo problematikekin lotura egiten saiatu nintzen behin eta berriro: hezkuntzan (LOMCE legea), erlijioan (Opus Dei-ren boterea Nafarroan), emakumearen eskubideetan (abortuaren legea), lurraldetasunean (Kataluniako prozesua) e.a. Galdera honekin, gaur egungo problematikak kokapen historiko baten irudikatzeaz gain, Historia oraina ulertzeko tresna gisa aurkeztu nahi zaie ikasleei. Historiaren betaurrekoak janztea gaur egungo problematiken inguruko ikuspegi historikoa izateko.

## 6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: ITURRI HISTORIKOAK

Proposamen didaktiko hau DBH 4.mailarako diseinatua izan da. Halere, eta moldaketak eginik, edozein mailatan landu daitekeela esan dezakegu. Alegia, iturri historikoen erabilera eta trataera ezagutzea, edozein mailatan egin daitekela. Bide honetatik, hurbilago egongo gara ikasle enpatiko, kritiko eta aktibo lortzeko erronkan.

Agerian geratu da ikasleek ez dutela garatua iturriekin harremanetan egoteko gaitasuna. Bigarren hezkuntza ez dago horren menpe edukiengatik, batxilergoan ez bezala. Honexegatik uste dut maila egokia dela ikasleekin proposamen hau gauzatzeko.

Arrazoi hauengatik erabaki da jarduera hau laugarren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lantzea. Gazteen garai kognitiboa kontuan hartuta, maila aproposa da oso kritikotasuna eta enpatxa lantzeko. Iturrien lanketaren bitartez, helburu hauexek lortzen saiatuko gara. Metodo memoristikoa alboratuz, Historia beste era baten lantzeko, ikasleen beharrei erreparatuko dio metodo bati jarraituz.

Iturri historikoei dagokionez, apur bat denetatik eskaintzen ahalegindu naiz. Betiere, beraien kabuz informazioa bilatzeko erronka planteatuko zaie, nahiz eta gutxieneko material batzuk eskaini. Hasteko Espainiako Gerra Zibilaren garaiko kartelak aztertzeari ekingo diogu. Bertan agertzen diren elementuak identifikatu eta balorazioa eginez. Saioan emandako gerraren arrazoiekin lotu beharko dituzte irudien gaiak. Halere, garrantzi gehien izango duen atala kartelaren balorazioa izango da. Esan beharra dago ikasleei kartelak eskainiko zaiela. Hala eta guztiz ere, ez da inolaz, ikasleek beraien kabuz informazioa bilatzeko atea itxiko. Are gehiago modu oso positiboan baloratuko da ikasleen grina hori. Bigarrenik, gerra garaiko prentsa artikulua bi aztertuko dira, biak ala biak gertakari historiko berdinen inguruan tratatzen dutelarik. Hain zuzen ere, Gernika bonbardatu ondorengo bi prentsa artikulua dira. Biak ala biak irakurketa oso desberdin batekin. Beraien kritikotasuna garatzeko eta egia absolutua existitzen ez dela ikusteko aukeratu ziren. Azkenik, film labur bat ikusiko da zeinetan enpatxa garatzeko erabili nahi den. Ikasleen enpatxa landu ez ezik, altxamendu militarrek Nafarroan izan zuen eragina ikusarazi nahi zaien gazteei. Aldi

berean, gerra garaiko ahozko testigantzak agertzen dira eta iturri modura duten garrantzia azpimarratu nahi zaie ikasleei.

Era honetan ahalik eta iturri historiko erakargarrienak aukeratzen ahalegindu naiz. Ikasleen kritikotasuna eta iritzi propioak garatzeko asmoarekin hautatutako iturriak dira, baita problematiken gaurkotasuna ikusteko eta ikasleen enpatxa garatzeko ere. Halere, ikasleek beraien kabuz informazioa bilatzearen aldeko apustua egingo da.

## 6.1. HAUTATUTAKO IRUDIAK

Esan bezala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailan lantzeko aproposak diren kartelak hautatu dira. Bertan, aldez aurretik azaldutako gerraren zergatiekin lotu beharko dituzte kartelen edukiak. Karteleko eragile politiko, sozial edo sindikalak identifikatu beharko dituzte ikasleek. Kartelak Historia sozialarekin loturiko gaiekin harremantzen dira. Arestian aipatu bezala, ikasleek beraien kabuz informazioa biltzeko aukerari ez diogu ezetz esango, are gehiago sustatu beharko dugu. Beraien kabuz informazioa bilatzearen ekintzari balio handia emango diogu, irakasleak garen heinean. Hiru problematika zehatz aukeratu izan ditut ikasleek aztertu eta beraien iritzia eman zezaten: emakumearen papera (2. Eranskina), klaseen arteko borroka (3. Eranskina) eta lurraldetasuna (4. Eranskina). Esan bezala, baldin eta ikasleek hezkuntzaren edota beste problematikaren inguruko kartelak bilatuz gero, oso positiboki baloratu beharko dugu. Problematika desberdinen bakoitzeko bi kartel aztertuko dira, bando faxistarena bata eta errepublikaren aldekoa bestea.

Kartelak aztertzeko erabili den metodologia sinplea izan da. Bi zati nagusitan banatuta dago: analisia eta balorazioa. Ikasleek kartelean identifikatzen duten informazio guztia idatzi beharko dute analisian. Bertan noizko kartela den, nork argitaratzen duen – hots eragile politiko, sozial edo sindikalak- , nori zuzenduta dagoen, zein mezu helarazten den eta zeintzuk diren kartelean ageri diren elementuak

eta sinboloak baita ikasleek nahi duten beste edozein komentario ere. Alde batetik hori. Beste alde batetik, eta benetako garrantzia duen ariketa delarik, ikasleen balorazioa eskatuko da. Bi karteletik balorazio bakarra egingo da, hau da problematika bakoitzeko balorazio bat egongo delarik. Ondoren guztion artean eztabaidatuko dugularik.

Ariketa honen helburu nagusia ikasleen balorazio kritikoa sustatzea da, alde batetik. Bestetik, ikasleen eta iturri historikoen inguruko harremana estutzea izango litzateke bigarren helburua. Irudiekin lan egitea modu erakargarria iruditzen zait. Era honetan, informazioa irakurri eta buruz ikasi beharrian, modu erakargarriagoa iruditzen zait irudi edo kasu honetan garaiko kartelak lantzea. Kartelen inguruan analisi txiki bat egin eta garrantzitsuena eztabaidatzeko aukera luzatuko da klasean. Bide batez, ikasleek beraien artean eztabaidatu ez ezik, beraien ideiak eta hausnarketak botatzeko aukera eskaini nahi da.

Bukatzeko azpimarratu nahi da zer nolako garrantzia izan zuen “gerra” propagandistikoak. Irratia eta ahoz ahokoa, komunikatzeko erarik hedatuenak ziren testuinguru baten, ikaragarritzko garrantzia hartzen du komunikatzen duen edozer. Zentzu honetan, politikoki, moralki eta batez ere komunikatiboki garrantzi izugarria izan zuten gerra garaiko kartelek. Aldi berean, gerra zibileko testuingurua hobeto ulertzeko aukera eskaintzen dizkigute kartel guztiek: garaiko eskakizun politikoak, salaketak, janzkera etab. luze bat.

## 6.2. HAUTATUTAKO PRENTSA ARTIKULUAK

Historiaren interpretazio anitzak ikusarazteko bidean eginiko jardura da ondorengoa. Gertakari historiko bat hautatu – kasu honetan Gernikako bonbardaketa- eta berorren inguruan idatzi ziren prentsa artikulua bi aztertuko dira. Artikulu bat *The Times* egunkari britainiarraren iturria da (5. Eranskina). Beste artikulua iturria, *La Nueva España* egunkari asturiarra da (6. Eranskina).

Era berean, ikasleek lehenengo mailako iturriekin elkarreraginean egongo dira. Iturrien garrantziaz jabetu behar ditugu ikasleak, iturrien balioaz jabetu behar ditugu, baldin eta guk planteaturiko dudak argitzen dituzten. Historia aztertzeke tresna oso baliagarria da lehenengo mailako iturri idatzi bat. Nahiz eta artikulua gertakari historiko berdinen inguruan idatzita egon, ez dute inolako antzik beraien edukietan. Bide batez, ikasleek egia neutral bat ez dagoela ikasteko burutzen da jarduera hau. Ez dagoela egia absoluturik eta subjektibotasunak eragin handia duela balorazioak egiterako orduan. Hor dugu batzuen eta besteen bertsioak.

Artikuluarekin lan egiteko metodologia bi atal nagusitan sailkatzen da. Lehenik eta behin artikuluen analisia burutuko da. Atal honetan artikuluen inguruko informazio guztia biltzen eta analizatuko da.

Atal honetako lehen pausua testuaren ideien sailkapena egitea izango litzateke. Artikuluen egileak nortzuk diren: egunkaria zein den, baita beraien ideologia ere. Kasu batean idazlea nor den jakin daiteke ere. Behin artikuluen egileak ikertuta, testuaren izaera zehaztuko da, hau da zein den gaia (ekonomikoa, politikoa, kulturala ... ) eta publikoa ala pribatua den (hau da hartzailea zein den zehaztea). Artikuluaren sailkapena amaituta hurrengo pausuari ekingo beharko litzaioko: azterketa. Testuaren azterketa hurbil bat agin beharko litzateke hitz edo kontzeptu esanguratsuenak definituz. Ondoren testuaren ideien atalak sailkatu beharko dute ikasleek eta azkenik laburpen txiki bat egin. Testuaren azterketa egin eta gero, testuaren iruzkina egingo dute ikasleek. Bertan gertakaria ematen den testuinguru historikoa deskribatuko dute. Noiz eta non ematen den gertakaria, testuinguru historikoan kokatuz eta berarekin duen harremana azalduz. Hau izango litzateke prentsa artikulua aztertzeke lehen atala.

Bigarren atalari garrantzi berezia emango zaio. Bertan balorazio pertsonala azalduko litzateke. Ikasleei beraien ideia propioak garatzen lagundu behar diegu irakasleek. Beraien iritziak ondo estrukturatu eta gero, beraien hausnarketak eta

balorazioak eztabaidatzeko aukera emango da. Guztion artean eztabaidatu egingo dugularik, betiere irakasleak moderatzailearen papera hartuz. Era honetan ikasleak irakaskuntza prozesuaren parte aktibo sentituko dira. Hori da Hezkuntza Sistemak bultzatu beharko lukeena.

### 6.3. HAUTATUTAKO DOKUMENTALA

Hautatutako film laburraren izenburua *Corazones Rojos (7. Eranskina)* da. Dokumental honekin, Espainiako Gerra Zibilak, Nafarroan izan zuen eragina ikusgai jartzea izan da helburu modura. Bertan, Tuterako herrian 1936ko altxamendu militarra nola bizi izan zen azaltzen da.

Aldi berean, ahozko iturrien garrantzia azpimarratu nahi da. Ikasleen gehiengoak ez ditu ahozko testigantzak iturri historiko moduan ikusten. Bide batez, dokumental honekin ideia horrekin apurtu nahi da.

Dokumental honekin ikasleen sentimenduak jorratzen saiatzen gara. Beraien sentimenduak identifikatu eta kudeatzen jakitea bilatzen da dokumental hau jarriaz. Nire uste xumean, beste ikuspegi batetik abiatzen da dokumentala; garaiko bibliografia erakutsiaz, ahozko testigantzak emanik, garaiko irudiak e.a.

Beste alde batetik, ikasleen enpatxa landu nahi da. Bidegabekerien aurrean hunkituta sentitzea, bestearen bizkarrean jartzeko aukera lantzea. Baldin eta hori lortzen bada, ikasleak testuinguruan historikoan buruz behera botatzea erdietsiko da dudarik gabe.

Aurreko iturriekin lan egin den antzerako metodologia erabiliko da dokumentala aztertzeko. Bi atal nagusi egongo dira. Lehenengoan dokumentalaren fitxa teknikoa eta berorren inguruko informazioa bildu beharko litzateke: Titulu originala, nazionalitatea, noiz estreinatu zen, zuzendaria, iraupena eta generoa (gidoia, produkzioa, argazkia, musika eta muntaia aipatu daitezke ere, baina hautazkoa da).



Hori izango litzateke fitxa teknikoan egon beharreko datuak. Jarraian dokumentalaren laburpen bat egin beharko dute beraien hitzekin. Hemen, dokumentalean ikusi diren elementu eta informazio guztia batu beharko da.

Aldi berean, kokapen historiko -xumea edo garatua- burutu beharko da ikasleen aldetik. Hemen ikasitako guztia azaltzen ahalegindu beharko dira.

Bigarren atalean ikasleen balorazio pertsonala hartuko da kontuan. Balorazio horretan, sentimenduak lantzeko apustua egingo da. Zein sentimendu sortarazi dizkien dokumentalak eta beraiek azaltzeko gai diren edo ez. Guztion artean eztabaidatu, hausnartu eta iritziak partekatuko dira.

Ikasketa prozesuaren erdigunean ikasleak kokatzen baldin baditugu, betiere baliabide erakargarriak erabiliz, beraien motibazioa eta interesa oso bestelakoa izango da. Ikasleen kritikotasuna, enpatxa eta motibazioa lantzeko aukera eskaintzen duela esan dezakegu proposamen honek.

Amaitzeko eta ez horregatik garrantzi gutxiagorekin honakoa aipatu beharra dago. Espainiako Gerra Zibila ematen den heinean, Curriculumari ehuneko ehunean jarraitzen den heinean, arrisku batzuk hartzen direla esan daiteke.

Haietako bat honakoa izango litzateke; altxamendu militarrek Nafarroan izan zuen eragina ezagutzea. Nola da posible bermatzea Jaramako bataila – Espainia mailan gertaturiko beste edozer ez aipatzearren- zein izan zen ezagutzea eta ez Nafarroan izandako gertakizunak? Nafarroan izandako baldintzak, testuingurua ... eta batez ere ondorioak. Muga horri aurre egiteko asmoarekin ikusi da dokumental hau.

## 7. ONDORIOAK

Lehenik eta behin aipatu beharra dago asko aldatu dela proposamen honen planteamendua hasieratik amaierara arte. Zein iturri erabili eta zeintzuk ez buruhauste nabaria izan da, filmen eszena egokienak aukeratzeko, dokumental aproposena, kartel eta artikulua erakargarrienak e.a. Betiere, ikasleen motibazioa aktibatzen izan dira aukeratuak iturriak.

Iturrien aukeraketaren arazoak ez ezik, Curriculumaren arazoa zegoen. Planteatutako helburuak sekuentziazio epe oso murriztuta batean bete behar ziren. Honek ikaragarritzko “kateatzea” suposatzen dio irakasleri. Ez da ikasleen kritikotasuna eta Historiaren ikuspegi globala garatzen; edukiak lantzerik eta helburuak betetzera baizik. Curriculumak bere horretan eragin ikaragarria du ikasgaietan, urteko programazioan guztiz txertatuta geratzen den heinean.

Aldi berean, gerra guztien –eta kasu honetan Espainiako Gerra Zibilean– trataera militarra eta belizista kritikatu nahi dut. Eta hori zen planteatzen nuen galdera: nola nahi dut gerra zibila landu? Gogoratzen dut nola ikasle nitzenean batailak eta aipamen militarrik azpimarratzen ziren. Halere, ez genuen gatazkaren arrazoietan sakontzen. Hori niretzako ikasle moduan nahitaezkoa zen; ulertzea.

Hausnarketa hori eginda, historia soziala lantzeko hautua egin nuen. Arestian aipatu bezala, garrantzi gehiegi hartzen duelako historia politiko-militarrak Historiako liburuetan. Emakumearen papera, klaseen arteko borroka, botere harremanak, herritarren egunerokotasuna, injustizia sozialak etab. Bide batez, ikasleen herritartasun gaitasuna garatzeko proposamena da.

Proposamen didaktiko honekin, Espainiako gerra zibilaren trataera desberdin bat eskaintzen ahalegindu gara. Ikasleek begirada globala eta zabala eduki ahal izateko hainbat iturri historikorekin jardun gara lanean. Era honetan, gatazka ulertzeko eta ez buruz ikasteko. Ikasleek ulertu behar dute, eta ahal den heinean nahi dutena ikasten utzi, betiere norantza batean abiatuta. Metodologia konstruktibista erabiliaz lortu daitekeela uste dut.

Nola ez, helburu argi batekin planteatzen da proposamen hau. Ikasleek iritzi propioak eta balorazio kritikoak egiteko. Gaia ulertzen duten heinean, beraien inguruko hausnarketak eta balorazioak egiteko kapaz izango dira ikasleak. Hain zuzen ere, jarduera hori garatzeko eta indartzeko asmoarekin diseinatuta dago gaiaren metodologia guztia.

Jasotako ebidentziak klabea izan dira ikasleen aurre-jakintzak ezagutzeko orduan. Abiapuntu egokia eskaini dit ikasleen maila non dagoen ezagutzeko. Honen harira aipatu beharreko ondorioa ikasleen arteko heterogeneotasuna da. Erantzunak zuriz uztetik, arrazoiketa garatuak izatera (era sinplean eta garatu gabeen erantzutera). Errealitate horrek asko harritu ninduen eta kontuan izateko aspektua da ikasleen heterogeneotasuna. Ezin da inor “atzean utzi” ez eta inoren gaitasunak garatzen gelditzen utzi. Balantza horrekin jolasten jakitea ezinbestekoa izango da irakasleriarentzat ikaskuntza integrala gauzatu bidean.

Gertakari historikoen gaurkotasuna azpimarratzen saiatu izan naiz proposamen honen bitartez. Ikasleek, oro har, ez dute egungo problematikekin lotzen gertakari historikoak. Gabezia horri aurre egiteko asmoarekin nire helburua zen beraiek gai izatea gaur egungo arazoekin harremantzea problematika historikoak. Era batean, ikasleek beraien bidea egiteko, bidea bera zehaztu gabe.

Oro har, gerraren garrantzi politiko-militarra gutxiesten da proposamen didaktiko honetan. Herrietako pertsona anonimoen historia lantzen saiatzen da eta beraien egunerokotasuna azalarazten. Horretarako dokumental labur bat erabili dugu. Ene ustetan, Historia totala lantzeko bidean ezinbestekoa da historiaren adar guztiak lantzea.


Gizarte ikasgaia nola planteatzen dugun dago gakoa. Argi dago ikasleek buruz ikasi behar den ikasgai bat moduan ikusten dutela. Zentzu honetan Hezkuntza Sistemaren izaera erreproduzitzen da. Hezkuntzak – historikoki horrela izan delako eta gaur egun oraindik horrela izaten jarraitzen duelako - balore eta harreman batzuk

eraikitzeko eta sistema bere horretan erreproduzitzeko tresna baino ez da. Hezkuntza demokratikoa behar du izan; ikasleak ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatu behar ditugu. Hezkuntza berdintasunezko harremanetan oinarritu behar da. Hezkuntza pertsonak hezitzeko tresna bat behar da izan, ikasleen garapen integrala erdietsi nahi baldin badugu.

Hausnarketa hauekin defendatu nahi dudana honakoa da: Hezkuntza Sistema aldatu behar dugula. Oso zaila egiten da –praktikan- bestelako pedagogia berritzaileekin lan egitea gaur egungo Hezkuntza Sistemak eskaintzen duen markoan. Aldi berean, hezkuntza instituzioen menpe dagoen heinean, oso zaila izango da ikasleen beharrei aurre egingo dizkioten programazioak diseinatzea. Hasiera hasieratik muga, epe, helburu eta azken baten, baldintza asko inposatzen diren momentutik, norberaren ikasleen beharrei erantzun dion programazio egokiena diseinatzea oso zaila izango da (ezinezkoa ez baldin bada). Gainera, gaur egun dauden murrizketa guztiekin are eta zailago izango da ikasleen beharrei erreparatzea.

Nahitaezkoa da ikasleen mesederako jauzi kualitatibo bat egitea, alegia, metodologia berritzaileak erabiltzea eta pedagogia eraikitzailea bultzatzea. Bide honetatik ikasleen garapen integrala erdiesteko eta berdintasunean oinarritutako baloreak hedatzeko.

Horretarako irakasleriak autokritika egin beharko luke ere. Ezin gara azaldu ezagutza guztiak ditugun “intelektualak” bezala. Irakasleak ez gara jakituriaren monopolioa dutenak, ikasleen jakituria ezaren aurrean. Ikasleek ez dute guk eta eskuliburuak botatuko informazioa irentsi behar. Ez dute edukiak eta edukiak bata bestearen atzetik buruz ikasi behar. Hori al da Gizarteko irakasle batek eduki behar duen helburu nagusia? Ene irudikoz, pertsona guztiak ditugu ikasteko gogoak. Nork ez du gauza berriak ikasi eta ezagutu nahi? Bada, askotan gazteen ikasteko grina hori guk geuk, irakasleok, itzaltzen dugu.



Guztion artean -ikasle, irakasle eta gurasoen artean- bestelako Hezkuntza Sistema bat eraikitzea posible da. Guztiok gure aportazioa eginik bestelako hezkuntza parekide, hezitzaile, solidario, demokratiko eta (auto)kritikoa eraiki ahal dugu. Horretarako parte guztien inplikazioa nahitaezkoa da. Ezeri ez inori itxaron beharrean, lanean jarraitu dezagun. Bestelako hezkuntza eredu bat eraikitzea gure esku dagoelako.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- AA.VV.: *El cine como estrategia didáctica innovadora. Metodología de estudio de casos y perfil de estrategias docentes*, EDIFID, Universidad de Barcelona y Universidad Autónoma de Barcelona, 2004.
- ALTAFAYA KULTUR TALDEA: *Navarra 1936: de la esperanza al terror*, AKT, Tafalla, 2003 (4. edizioa).
- ARDIT LUCAS, M. & PERIS ALBENTOSA, T.: *La historia como interpretación de conflictos. Orientación teórica y praxis didáctica*, NAU llibres, Valencia, 1999.
- CALAF MASACHS, R.: *Didácticas de las Ciencias Sociales: didáctica de la Historia*, oikos-tau, Barcelona, 1994.
- HENRÍQUEZ, R. & PAGÈS, J.: *La investigación en didáctica de la Historia*, Universidad Autónoma de Barcelona, 2012.
- MAJUELO GIL, E. & GUIBERT NAVAZ, E.: *Tratamiento didáctico de las fuentes históricas*, Grupo Editorial Universitario, 1998.
- MAJUELO GIL, E.: *La generación del sacrificio. Ricardo Zabalza 1898-1940*, Txalaparta, Tafalla, 2008.
- MERCHÁN IGLESIAS, F. J.: *La producción del conocimiento escolar en la clase de Historia: profesores, alumnos y prácticas pedagógicas en la Educación Secundaria*, Universidad de Sevilla, 2011.
- PAGÈS, J.: *Aprender a enseñar Historia y Ciencias Sociales: el currículo y la didáctica de las Ciencias Sociales*, 2002.
- PEDRONZO, M. J.: *Teorías del aprendizaje: Jean Piaget y Lev Vigotsky*, 2012.
- SANTISTEBAN, A., GONZÁLEZ N. & PAGÈS J.: *Una investigación sobre la formación del pensamiento histórico*, XXI. Simposio Internacional de didáctica de las Ciencias Sociales, 2010.

### 8.1. WEBGRAFIA

- [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es)
- [www.scholar.google.es](http://www.scholar.google.es)

## 9. ERANSKINAK

### 1. Eranskina

Berriozar 4.DBH

Izena:

## ESPAINIAKO GERRA ZIBILA

### 1. Printzipio historikoak

- a) XX. mendeko zein **testuingurutan** lehertzen da Espainiako Gerra Zibila? [Noiz]
- b) Zein **arrazoi** egon ziren Gerra Zibilaren eztandan? [Zergatik]
- c) Aipatu gerrako bi **bandoak**. Ezagutzen dituzun bando bakoitzeko erakundeak (politiko, militar, sozial edo sindikalak) idatzi. [Nortzuk]
- d) Gerran Zibilean, nazioarteko parte-hartzerik egon al zen? Erantzuna baiezkoa bada, aipatu zeintzuk. [Nortzuk]
- e) Zeintzuk izan ziren Gerra Zibilaren **ondorioak**? [Ondorioak]
- f) Gerra Zibilarekin harremana duen gaur egungo problematika bat aipatu. Problematika bat baino gehiago aipatu daitezke. [**Gaurkotasuna**]

### 2. Nafarroako Historia

**Nafarroan** eragina izan ote zuen Espainiako Gerra Zibilak?

### 3. Sentimenduak

Ze **sentimendu** sortzen dizkizu Nafarroan gertatutakoa?

### 4. Balorazio pertsonala

Baloratu ezazu Espainiako gerra zibila zure iritzi propioa argudiatuz.

## 2. Eranskina

Ikaslea:

Berriozar 4.DBH



1. Análisis
2. Balorazio pertsonala



### 3.Eranskina

Ikaslea:

Berriozar 4. DBH





1.Analisisa

2.Balorazio pertsonala

## 4.Eranskina

Ikaslea:

Berriozar 4.DBH



1.Analisisa

2.Balorazio pertsonala

## 5. Eranskina

### La tragedia de Guernica

#### Ciudad Destruída en Ataque Aéreo

CUENTA DE: George Steer

**BILBAO, 27 de Abril**

Guernica, la ciudad más antigua de los vascos y el centro de su tradición cultural, fue destruida por completo ayer por la tarde por los invasores aéreos insurgentes. El bombardeo de esta ciudad abierta muy por detrás de las líneas ocupaba exactamente tres horas y cuarto, durante las cuales una poderosa flota de aviones que consisten en tres tipos alemanes, Junkers y Heinkel bombarderos y cazas Heinkel, no cesó de descargar en las bombas en la ciudad y, se calcula, que fueron más de 3000 proyectiles incendiarios. Los aviones de combate, por su parte, cayeron bajo desde arriba del centro de la ciudad para las ametralladoras los de la población civil que se habían refugiado en los campos.

El conjunto de Guernica fue pronto en llamas, excepto la histórica Casa de Juntas con sus abundantes archivos de la raza vasca, donde el antiguo Parlamento vasco solía sentarse. El famoso roble de Guernica, el tronco viejo y seco de 600 años y los jóvenes nuevos brotes de este siglo, también era virgen. Aquí los reyes de España utilizan para tomar el juramento de respetar los derechos democráticos (fueros) de Vizcaya y a cambio recibieron una promesa de lealtad como señores feudales con el título democrático de Señor, no Rey Vizcaya. La iglesia parroquial de Santa María noble también estaba intacto a excepción de la hermosa sala capitular, que fue alcanzado por una bomba incendiaria.

A las 2 am a día cuando visité el pueblo todo él era un espectáculo horrible: llamas de extremo a extremo. El reflejo de las llamas podía verse en las nubes de humo por encima de las montañas desde 10 millas de distancia. A lo largo de las casas nocturnas fueron cayendo hasta que las calles se convirtieron en largos montones de escombros rojos impenetrables. Muchos de los sobrevivientes civiles tomaron la larga caminata desde Gernika a Bilbao en carros tirados por bueyes. Carros apilados con las posesiones de la casa. Otros supervivientes fueron evacuados en camiones del gobierno, pero muchos se vieron obligados a permanecer alrededor de la ciudad o en busca de familiares y niños perdidos, mientras que las unidades de los cuerpos de bomberos y la policía motorizada vasca, bajo la dirección personal del Ministro del Interior, el señor Monzón, y su esposa continuaron las labores de rescate hasta el amanecer (...)

## LA VERDAD SE IMPONE

### Lo que dice un corresponsal de «United Press» de la destrucción de Guernica

Roma.—Se ha trasladado a Guernica un corresponsal de "United Press", el cual ha dado cuenta de los importantes avances del Ejército de Mola con las siguientes palabras:

—Hoy he realizado una dolorosa excursión a Guernica. El Alto Mando nacional me ha invitado, como observador imparcial, para que pudiera ver con mis propios ojos que Guernica no fué destruido por la aviación nacional, como afirman los rojos, sino que, por el contrario, lo ha sido por las hordas anarcobolcheviques. He recorrido todas las calles y plazas, tan en ruinas que en muchos sitios llegaron a alcanzar los escombros hasta quince metros de altura, obligando a los transeúntes a dar vueltas interminables.

Lo que queda de los edificios no presenta el menor indicio de haber sufrido un bombardeo y tampoco he podido observar huellas de explosiones de bombas de aviación. Me he metido entre ruinas de veinte edificios, comprobando que todos, sin excepción, fueron destruidos por el incendio provocado desde el exterior, de acuerdo con planes uniformes, previamente estudiados. También he podido observar que las planchas exteriores de los edificios están intactas, sin haber sufrido desperfectos a consecuencia del fuego provocado por el mismo sistema. He visto enormes boquetes producidos por la explosión de minas de dinamita, que los rojos volaron antes de abandonar Guernica.

La Nuevas España

1937-V-4

## 7.Eranskina

Elisabeth Aranda (2003)

